



**Basaburuko Udala**  
CIF P 3104900 J  
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

### **2020KO ABENDUAREN 23AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2020ko abenduaren 23an, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

**BERTARATUAK:** Julen Beunza, Santos Etxegia, Ricardo Arangoa, M<sup>a</sup> Mar Ansorena eta Xabier Azpiroz.

**BERTARATU EZ DIRENAK:** Olatz Dorai.

Bertaratu dira baita ere Igoako kontzejuko ordezkaria eta Amaia Lasarte eta Oscar

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

### **GAI ZERRENDA**

#### **1.- Aurreko aktaren onespena.**

Azaroaren 25ean egindako batzarreko akta emailez helarazi zaie zinegotziei eta aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta.

#### **2.- Alkate ebazpenak**

Alkateak ondoren transkribatzen diren ebazpenak irakurtzen ditu.

- 2020/92 alkate ebazpena onartuz behin behinekoz, gainbalioaren zergari lotuta ez egotea, Aizarotzko Erdiko Karrika 12 helbidean dagoen

etxebizitzaren salmenta, Ruben Vidorretak egindakoa, Nafarroako Toki Ogasunen 1995/2 Foru Legea aldatzen duen 2017/19 Foru Legearen 172. Artikuluaren arabera eta ikusita salerosketak ez duela gainbalioa sortu

- 2020/93 alkate ebazpena onartuz B71000061 IFK zenbakidun Joaquin Chocarro enpresak aurkeztutako aurrekontua, 224,82 eurokoa (BEZ KANPO), Aizarotzko herrikoetxeko sukaldeko plaka aldatzeko.

- 2020/94 alkate ebazpena onartuz Gure Sustraiak guraso elkarteak egindako diru laguntza eskaera, eta agintzea 300 euroko ordainketa egitea aipatutako diru laguntza bezala.

- 2020/95 alkate ebazpena onartuz Amaia Arano Nagoreri urte bateko luzapena Igoako 9. Poligonoko 248. Lursailan bigarren etxebizitza egiteko obra baimenerako.

-2020/96 alkate ebazpena ez onartzea Felix Beunza Larumbek egindako bereizte eta elkartze baimen eskaera Ihabengo 3. Poligonoko 3 eta 89. Lursailtarako, ez delako hirigintza arautegira egokitzen , udal arkitektoaren txostenaren arabera.

-2020/97 alkate ebazpena obra baimena emanaz Fernando Marculeta Aranari, Igoako 9. Poligonoko 83. Lursailean etxebizitza eraikitzeko aurrekontua 198.025,74 euroko izanen da .

- 2020/98 alkate ebazpena onartuz Acciona Energia S.A enpresak aurkeztutako aitorpen arduratsua Berueteko Aritz parke eolikoaren bideetan biondak jartzeko 55.915,80 euroko aurrekontuarekin.

- 2020/99 alkate ebazpena onartuz Felix Beunza Larumbek aurkeztutako aitorpen arduratsua Ihabengo 3. Poligonoko 3. Lursailean egurtegia egikaritzeko 2.799,48 euroko aurrekontuarekin.

- 2020/100 alkate ebazpena onartuz Javier Ignacio Beunza Larumbek aurkeztutako aitorpen arduratsua Ihabengo 3. Poligonoko 2. Lursailean egurtegia 2.939,74 euroko aurrekontuarekin.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte orain harte onartutako ebazpenak.

### **3.- 2021 tasa eta zergak.**

Alkateak azaltzen du aztertu direla tasak ogasun batzordean eta erabakia izan dela mantentzea 2020. Tasen balioak 2021. Urterako ere. Aldaketa bakarra izanen litzateke gelen erabilera arautzen duen ordenantza onartzeak ere dakarrela gelen erabileren tasak finkatu eta onartzea.

Irakurtzen dira 2021. Urterako tasa eta zergen balioak:

URAREN TASAK:

- Ur kontsumoa 0.275 €/m<sup>3</sup>
- Ur hornidura kuota: 20,08 euro (seihilabeteko)
- Saneamendu kuota: 20,08 euro (seihilabeteko)

- Ur lotura 267,51 euro.
- Hiri kontribuzioa; 0.235.
- EIOZ zerga %5ean finkatzen da. Aurreko urteko balorea mantentzen da.
- 1.19 eko erakuslea ezarri JEZ zerga kobratzeko
- Lurren baloreen igoeraren zerga, 2019ko foru legearen arabera, mantentzen dira.

Urtebetetik beherakoa	0,09
Urtebete	0,09
2 urte	0,18
3 urte	0,28
4 urte	0,20
5 urte	0,06
6 urte	0,06
7 urte	0,06
8 urte	0,06
9 urte	0,06
10 urte	0,06
11 urte	0,06
12 urte	0,06
13 urte	0,06
14 urte	0,06
15 urte	0,06
16 urte	0,16
17 urte	0,29
18 urte	0,43
19 urte	0,56
20 urte edo hortik gorakoa	0,63

KARGA %25a.

AIZAROSKO EPAITZAK: PREZIO PUBLIKOA Finkatuko da gastua sortzen denean, eta pisuaren arabera kobratuko.

AIZAROSKO BARATZEN ERABILPENA: Hitzarmenean sinatu bezala 13 euro baratzeko kobratuko dira KPI-a igoz, kontutan hartuta baratzak lur patrimonialean kokatuak daudela eta hortaz kobratu beharrekoa lursail horri dagokion ordaindu beharrekoa, errenta bezala kontutan hartuko da.

HIRIGINTZA TASAK

Aurreko urtetan bezala mantentzea erabaki dute bildutakoek.

- Obra baimenen tramitazioa:

< 5000 aurrekontua: 50,00 €

>5000<15000: 70,00 €

>15000<30000: 140,00 €

<30000<60000: 210,00 €

<60000<150000: 280,00 €

>150000<300000: 350,00 €

<300000<600000: 420,00 €

Eranskina, zuinketa akta eta beste batzuk. 70,00 € (Testua aldaketa Eranskina, zuinketa akta eta kontsultak 70,00€.

- Urbanizatu ezin den lurrian eraikitzeko baimena: 105 €			
- Saillkatutako jarduera baimena edo aitortpena arduratsua : 140 € 4D eranskineko jarduerak: 172 € Ikuskaritza bisitak: 365 €			
- Lehen erabilera baimenak, obra bukaerak: 230 €			
- Irekiera baimena edo aitortpen arduratsua: 245 €			
4A, 4B eta 4C eranskinetako jarduera saillkatuak 443 € 4D eranskineko jarduerak: 260 € Ikuskaritza bisitak: 365 €			
Eranskina: 70 €			
- Lursailen zatiketa baimenak: 205 €			
- Ikerketa edo memoriatarako hirigintza kontsultak, xehetasun azterlanak eta reparzelazio proiektuak: 210 €			
- Udal Planaren aldaketa zehatzak: 245 €			

- Hirigintza arauen aldaketa, plan partzialak : 315 €			
- Bestelako informeak, alegazioak: 175 €			

#### JAUN SARATSKO POLIKIROLDEGIKO ARGIA ERABILTZEKO TASA

Kirol batzordean ere tasak mantentzea erabaki dute hortaz hauek izanen dira 2019ko polikiroldegia erabiltzeko tasak.

- 2 euro/ordua frontoiko argia erabiltzeko.
- 3 euro/ordua kantxako argia erabiltzeko
- 5 euro/ordua polikiroldegi guztiko argia erabiltzeko (frontoia eta kantxa).

Udal eraikinetan dauden gelen erabilera

Iharduera puntualak: Hiru ordu baino gutxiago, 10 euro. Hiru ordu baino gehiago, 20 euros.

Aldizkako iharduera, 6 euro sesio bakoitzeko, hiru orduko ihardueretarako para hiru ordutik aurreragoko ihardueretarako, 12 euro sesio bakoitzeko.

Egun osoko iharduerak: 20 euro.

**Bildutakoek aho batez onartzen dituzte 2021. Urterako tasa eta zergak eta akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute.**

#### **4.- 2020/1 eta 2020/2 aurrekontu aldaketak. Hasierako onspena**

Alkateak azaltzen du, 2020ko kontuen exekuzioak aurrekontua aldaketa bi egitea eskatzen duela, alde batetik Arraratsko kontzejuari ordaindu zaion gastu bai aurre egiteko, Baserrietara ura eramateko proiektuaren eta bestetik Gizarte Zerbitzuen poltsan faltan den soberakinari aurre egiteako.

Gai ere ogasun batzordean aztertu da eta hasierako onspena batzarrea emateko proposatu.

Aurrekontu aldaketen zehaztapena hau da:

2020/1 aurrekontu aldaketa. Arraratsko kontzejuari ordaindu 2689 euro ur hornidura sarearen proiektuaren gastuari aurre egiteko, hala adostu zelako bi aldeen artean.

Gastu hau sartzeko ez dago aurrekontuan partidarik, sortu beharko litzateke partida hori 1.1.4 poltsan, partida horren aurreikuspena 2700 eurokoa izango litzateke.

Partida hori sortzeko, soberakina, 1998/270 Foru Dekretuaren 41. artikulua arabera kreditu transferentzi bidezko aurrekontu aldaketarekin sortu ahal da. Horrela aurrekontuaren osoko kredituan aldaketarik egin gabe, beste partida batean dagoen gastatu gabeko soberakina erabili ahal da. Soberakin erabilgarria duen 1.9.6 poltsan dagoen udaleko inbertsioetako obra ezberdinak partidatik hartu ahalko litzateke, Partida honetan dagoen aurreikuspena 32.000 eurokoa da eta erabilgarriak 21.054 euro gelditzen dira. Hortaz bertatik 2.700 euroko soberakina hartuko litzateke aipatutako partida Arrarats baserrietara ura eramateko proiektua sortzeko.

1.9.6 poltsaren erabilgarria hortaz 18.354 eurotan geldituko lirateke.

2020/2 aurrekontu aldaketa. Gizarte zerbitzuetako ekarpenak osatzen duen poltsak eskatzen du ere aurrekontu aldaketa egitea. Poltsa horretan daude urteko mankomunitateari egiten zaio ekarpena, etxez etxeko zerbitzuaren kostea, lan babestua eta abar... Aipatutako poltsan oraindik onartu gabe agertzen dira gastu bezala, lan babestuaren 2. zatia hots 1580 euro inguru eta etxez etxeko zerbitzuarena, aurreko urtean 7000 euro ingurukoa izan zen. Hortaz bi gastu hauek kontutan hartzen badira poltsan beharko litzatekeen erabilgarria 8600 euro ingurukoa izanen litzateke. Gaurko datarekin poltsa horretan osotara dagoen erabilgarria 959,21 eurokoa da. Aipatu urteko ekarpena 2020. urtean ia bikoiztu dela, aurreko urtekoa 11.300 eurokoa izan zen.

Aipatuko soberakina aurreko aurrekontu aldaketaren kasuan egin den bezala, kreditu transferentzi bidez hartu ahalko litzateke 1.9.6 inbertsioen poltsatik, bertan oraindik 18.354 euroko erabilgarria dagoenez.

Hortaz kreditu transferentzi bidezko aurrekontu aldaketa bidez, Gizarte Zerbitzuak urteko ekarpenaren aurreikuspena 8.600 euro gehiagotan igotzea izanen litzateke aukera eta horrela oraindik gastua onartu gabe dituzten bi partiden (etxez etxe eta lan babestuko kuotak) aurreikuspena ez litzateke gaindituko.

1.9.6 poltsaren erabilgarria hortaz 9.754 eurotan geldituko lirateke.

1998/270 Foru Dekretuaren 33. Artikuluaren arabera, bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Hasiera batez onartzea 2020/1 eta 2020/2 aurrekontu aldaketak, kreditu transferentzi bidezkoa aurrekontu aldaketak izanik, Arrarats baserreitarako ura eramateko 2.700 euroko aurreikuspena duen aptida sortzeko alde batetik eta gizarte zerbitzuen poltsan 8.600 euroko soberakina gehitzea Gizarte Zerbitzuen ekarpen orokorraren partidari. Biak hala biak, 1.9.6 poltsan dagoen soberakina erabiliz egingen dira.**

## **5.- Mozioak.**

Ez dago moziarik.

### **Igoako 9. Poligonoko 287. Lursailerako udal planaren egiturazko aldaketa. Behin behineko onespena.**

Alkateak azaltzen du iraileko batzarrean behin behineko onespena eman zitzaiola aipatutako udal planari. Akordio hau eta dokumentazioa Nafar Gobernura helarazi zen, beraiek eskumena delako behin betiko onespena ematea aldaketa honi egiturazkoa delako.

Nafar Gobernutik eskaera bat luzatu zitzaion sustatzaileek zuzenketa batzuk egiteko, horien artean planaren aldaketaren azalera 1670 metrotik 1377 metrora jeisten zela eta hortaz ere eraikigarritasuna 703 metrotik 592 metrotara.

Aldaketa honek berriro dokumentua behin behineko onartzea eskatzen duenez bildutakoak aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute, 2017/1 Foru Legearen 77 eta 78. Artikuluetan oinarrituz.

**- behin behineko onespena ematea Igoako 9. Poligonoko 287. Lursailerako udal planaren egiturazko aldaketari, aipatutako lursailaren 1924 m<sup>2</sup>ren izaera landa lurretik hiri lurrera pasatzeko eta akordio hau Nafar Gobernura helaraztea behin betiko onespena eman dezaioten.**

### **6- Batzordeen informazioa.**

#### **Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.**

Cedernarekin bilera egin da lehen sektorea bultzatzeko proiektuaren langileari lanaldia luzatzearen inguruan, luzapen hau udal guztien artean eginen lirateke eta Basaburuari egun ordaintzen duen ekarpenetik 1000 euro gehiago igotzea suposatuko lioke.

Honekin egun duen 5 orduko kontratua, lanaldi osora pasatuko litzaioke,

Hau ikusita bildutakoek ontzat emateko dute lanaldi luzapen hori eta onartu ere horrekin lotuta Basaburuari dagokion ekarpena haunditzea.

Erabaki hau Cederna Garalur entitatera jakinaraziko da.

#### **Kontzejuan Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.**

Kontzejuekin bilera egin zen elurkentzeko lanen inguruan Pedro Urrizak egindako proposamena aztertze eta elurkentzeko lanak egiten dituztenen prezioak bateratzeko.

Honen ildora Igoako kontzejuko ordezkariak adierazten du beraiek ados daudela Pedro Urrizak egindako proposamenarekin baina onartuko dutela mantenimenduaren ordainketa egitea negurako gelditzen diren hiru hilabeteetarako bakarrik.

### **7- Informazio orokorra.**

-0-3 atala, ikasturte berriko ekarpenaren %80ko ordainketaren jakinarazpena, 45.210 eurokoa. Ikasturte osoko ekarpena 56.512 eurokoa izanen da eta bertan kontutan hartu

dute ezohiko partida bat koronabirusarekin lotutako kontratazio berriei aurre egiteko, 9.477 eurokoa.

-Euskarabideko dirulaguntzaren onespina. 1.110,99 eurokoa. Diru laguntza honetan Uemaren kuotaren gastua justifikatzen da

- Berdintasun institutua. Berdintasun programetarako dirulaguntzaren ordainketaren jakinarazpena 878,99 eurokoa.

-2020 arte eta kultura. Justifikazioa aurkeztu ondoren kobratu beharreko diru laguntza 2000 eurokoa jakinaraziz.

- Kirol eta Gaztedia Institutua, adinduendako osasun programen dirulaguntzaren onespina 2020-2021 ikasturterako, ikasturteko 1 zatia justifikatu ondoren (urria eta azaroa), kobratuko den dirulaguntza 247,52 eurokoa izanen da.

- Lurralde eta Paisai Atala. Udal plana berritzeko dirulaguntzaren bigarren zatiaren ordainketaren jakinarazpena 36.720 eurokoa hasierako onespenearekin lotutakoa.

## **8. Erreagu-galderak**

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeke ez dagoenez arratsaldeko 20:00 ak direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.